

# LOREZAINTZA– INGURUMEN-IRIZPIDE SINPLIFIKATUAK

## Prozedura ireki bidez kontratatzeko ingurumen-irizpideak

| Oinarrizko maila | Maila aurreratua |
|---|---|
| **KONTRATUAREN XEDEA:** | **KONTRATUAREN XEDEA:** |
| Kontratuaren xedea da berdeguneen mantenurako lorezaintza-zerbitzua kontratatzea. Zerbitzuak gauzatzean, ingurumena gehien errespetatzen duten metodoak, jardunbideak eta produktuak erabiliko dira. | Kontratuaren xedea da berdeguneen mantenurako lorezaintza-zerbitzua kontratatzea. Zerbitzuak gauzatzean, ingurumena gehien errespetatzen duten metodoak, jardunbideak eta produktuak erabiliko dira. |
| **GAITASUN TEKNIKOA** | **GAITASUN TEKNIKOA** |
| 1. Zerbitzuarekin lotutako lorezaintza-jarduera jasangarrietan prestakuntza duen koordinatzaile bat izatea.<br>***<u>Egiaztapena:</u>*** *Pertsona horren curriculum vitaea eranstea.* | 1. Zerbitzuarekin lotutako lorezaintza-jarduera jasangarrietan prestakuntza duen koordinatzaile bat izatea.<br>***<u>Egiaztapena:</u>*** *Pertsona horren curriculum vitaea eranstea.* |
| **ESPEZIFIKAZIO TEKNIKOAK (nahitaez betetzekoak):** | **ESPEZIFIKAZIO TEKNIKOAK (nahitaez betetzekoak):** |
| **Ongarriak**<br>2. Ongarri kimikoen erabilpena administrazioak zehaztutako eremuetara bakarrik mugatuko da. | **Ongarriak**<br>2. Ongarri kimikoen erabilpena administrazioak zehaztutako eremuetara bakarrik mugatuko da. |

| | |
|---|---|
| Gainerako arloetan, lurzoruaren kalitate fisikoa eta kimikoa hobetzeko, lurzoruari konposta gehituko zaio edo konpost asko duten lurren medeapenak egingo dira.<br><br>***Egiaztapena:*** *Berme hau aurkeztu beharko da: 1.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).* | Gainerako arloetan, lurzoruaren kalitate fisikoa eta kimikoa hobetzeko, lurzoruari konposta gehituko zaio edo konpost asko duten lurren medeapenak egingo dira.<br><br>***Egiaztapena:*** *Berme hau aurkeztu beharko da: 1.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).* |
| **Izurrien eta landareen gaixotasunen kontrola**<br><br>3. Produktu bioziden edo fitosanitarioen erabilera ahal beste murriztu behar da, baina baita eremu berdeetako landareen osasuna bermatu ere. Horregatik, lizitatzaileek izurriteen kontrolerako plan integral bat aurkeztu beharko dute, zehatz-mehatz azalduko duena zein tratamendu emango zaion arazo bakoitzari (prebentiboa, mekanikoa, termikoa eta biologikoa). Plan hori kontratua indarrean dagoen bitartean aplikatuko da.<br><br>***Egiaztapena:*** Ondoko abala aurkeztu beharko da: 1.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak). | **Izurrien eta landareen gaixotasunen kontrola**<br><br>3. Produktu bioziden edo fitosanitarioen erabilera ahal beste murriztu behar da, baina baita eremu berdeetako landareen osasuna bermatu ere. Horregatik, lizitatzaileek izurriteen kontrolerako plan integral bat aurkeztu beharko dute, zehatz-mehatz azalduko duena zein tratamendu emango zaion arazo bakoitzari (prebentiboa, mekanikoa, termikoa eta biologikoa). Plan hori kontratua indarrean dagoen bitartean aplikatuko da.<br><br>***Egiaztapena:*** Ondoko abala aurkeztu beharko da: 1.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak). |
| **Landareen hautapena**<br><br>4. Administrazioak urte-sasoiko landareak erostea edo dauden landareen ordez inguruko klimara hobeto egokitzen diren beste batzuk jartzea eskatuko du urtean zehar. Landare hauek espezie ez inbaditzaileak ere izan behar dira.<br><br>***Egiaztapena:*** *Berme hauetakoren bat aurkeztuko beharko da: 1.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).* | **Landareen hautapena**<br><br>4. Administrazioak urte-sasoiko landareak erostea edo dauden landareen ordez inguruko klimara hobeto egokitzen diren beste batzuk jartzea eskatuko du urtean zehar. Landare hauek espezie ez inbaditzaileak ere izan behar dira.<br><br>***Egiaztapena:*** *Berme hauetakoren bat aurkeztuko beharko da: 1.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).* |
| **Ibilgailuak**<br><br>5. Zerbitzurako proposatutako turismo-ibilgailuek edo merkataritzako ibilgailu arinek bete beharreko gutxieneko | **Ibilgailuak**<br><br>5. Zerbitzurako proposatutako turismo-ibilgailuek edo merkataritzako ibilgailu arinek bete beharreko gutxieneko errekuntza-gasen igorpenen estandarra EURO 5 mailakoa izan behar da. |

| | |
|---|---|
| errekuntza-gasen igorpenen estandarra EURO 5 mailakoa izan behar da.<br><br>***<u>Egiaztapena:</u>*** *Proposamenean sartutako ibilgailu bakoitzerako abal hau aurkeztu beharko da: 2.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).* | ***<u>Egiaztapena:</u>*** *Proposamenean sartutako ibilgailu bakoitzerako abal hau aurkeztu beharko da: 2.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).* |
| **Makineria**<br><br>6. Makinei dagokienez, lizitatzaileak materia organikoarentzako eta zurarentzako birringailu eramangarria izan behar du lur-estalkiak edo mulchingak *in situ* egiteko. Gero, mulching hori administrazioak definitutako eremuetan banatuko da.<br><br>***<u>Egiaztapena:</u>*** *Ondorengo abalak aurkeztu beharko dira: 1. eta 2.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).* | **Makineria**<br><br>6. Makinei dagokienez, lizitatzaileak materia organikoarentzako eta zurarentzako birringailu eramangarria izan behar du lur-estalkiak edo mulchingak *in situ* egiteko. Gero, mulching hori administrazioak definitutako eremuetan banatuko da.<br><br>***<u>Egiaztapena:</u>*** *Ondorengo abalak aurkeztu beharko dira: 1. eta 2.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).* |
| | **Ur-erabilera efizientea**<br><br>7. Ur-kontsumoa murrizteko, lizitatzaileek uraren erabilera efizientearen plan bat aurkeztu beharko dute –ureztatzea barne hartuta–.<br><br>***<u>Egiaztapena:</u>*** *Ondoko abala aurkeztu beharko da: 1.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).* |
| **GAUZATZE-IRIZPIDEAK (nahitaez betetzekoak):** | **GAUZATZE-IRIZPIDEAK (nahitaez betetzekoak):** |
| **Hondakinen gaikako bilketa eta kudeaketa**<br><br>7. Esleipendunak sortutako hondakinen kudeaketa egokia bermatu behar du. Zehazki, honela:<br>- Lur-estalkia egiteko erabiltzen ez den materia organiko guztia *in situ* konpostatuko da enpresaren instalazioetan edo baimendutako instalazio batean, adostutakoaren arabera. | **Hondakinen gaikako bilketa eta kudeaketa**<br><br>8. Esleipendunak sortutako hondakinen kudeaketa egokia bermatu behar du. Zehazki, honela:<br>- Lur-estalkia egiteko erabiltzen ez den materia organiko guztia *in situ* konpostatuko da enpresaren instalazioetan edo baimendutako instalazio batean, adostutakoaren arabera. |

| | |
|---|---|
| - Ontzi eta hondakin ez-arriskutsuak hirietan egiten den gaikako bilketa kontuan izanik bereiziko dira eta dagozkien edukiontzietara botako dira.<br>- Produktu arriskutsuen ontziak eta beste hondakin arriskutsu batzuenak (olio lubrifikatzaileenak, adibidez) bereizita bilduko dira eta baimendutako kudeatzaile baten bitartez kudeatuko dira. | - Ontzi eta hondakin ez-arriskutsuak hirietan egiten den gaikako bilketa kontuan izanik bereiziko dira eta dagozkien edukiontzietara botako dira.<br>- Produktu arriskutsuen ontziak eta beste hondakin arriskutsu batzuenak (olio lubrifikatzaileenak, adibidez) bereizita bilduko dira eta baimendutako kudeatzaile baten bitartez kudeatuko dira. |
| **ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK:** | **ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK:** |
| **Izurriteen Plan Integrala**<br><br>8. Aintzat hartuko da izurriteen plan integralaren kalitatea, bereziki produktu biozidak eta fitosanitarioak ahalik eta gutxien erabiltzeari dagokionez (gehienez 8 puntu).<br><br>***Egiaztapena:*** *Ondoko abala aurkeztu beharko da: 1.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).* | **Izurriteen Plan Integrala**<br><br>9. Aintzat hartuko da izurriteen plan integralaren kalitatea, bereziki produktu biozidak eta fitosanitarioak ahalik eta gutxien erabiltzeari dagokionez (gehienez 8 puntu).<br><br>***Egiaztapena:*** *Ondoko abala aurkeztu beharko da: 1.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).*<br><br>10. Halaber, balioa emango zaio proposatutako produktu biozidak eta fitosanitarioak jarraian zehaztutako arrisku-oharren batekin sailkatuta eta etiketatuta ez egoteari, 1272/2008 (EE) Erregelamenduaren eta ondorengo zuzenketen arabera: H300, H301, H310, H311, H314, H330, H331, H340, H350, H360F, H360D, H360FD, H360Fd, H360Df, H361f, H361d, H361fd, H362, H370, H372, H400, H410, H411 edo EUH059 (gehienez 4 puntu).<br><br>***Egiaztapena:*** *Proposamenean sartutako produktu bakoitzerako abal hau aurkeztu beharko da: 3.a (ikusi egiaztapen-dokumentazioa).* |

| Ongarriak eta medeagarriak | Ongarriak eta medeagarriak |
|---|---|
| 9. Balioa emango zaio konpostak eta/edo medeagarriek Europar Batasuneko etiketa ekologikoan edo baliokideren batean zehaztutako osaeraren eta substantzien inguruko irizpideak betetzeari (gehienez 2 puntu).<br>***Egiaztapena:*** *Proposamenean sartutako produktu bakoitzerako abal hau aurkeztu beharko da: 4.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).* | 11. Balioa emango zaio konpostak eta/edo medeagarriek Europar Batasuneko etiketa ekologikoan edo baliokideren batean zehaztutako osaeraren eta substantzien inguruko irizpideak betetzeari (gehienez 2 puntu).<br>***Egiaztapena:*** *Proposamenean sartutako produktu bakoitzerako abal hau aurkeztu beharko da: 4.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).* |
| | **Makineria**<br>12. Kontuan hartuko da motor % 100 elektrikoa duten makinen ehunekoa (gehienez 3 puntu).<br>***Egiaztapena:*** *Proposamenean sartutako makina bakoitzerako abal hau aurkeztu beharko da: 2.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).* |
| | **Ur-erabilera efizientea**<br>13. Ur-erabilera efizienterako planaren kalitate-mailari balioa emango zaio (gehienez 3 puntu).<br>***Egiaztapena:*** *Ondoko abala aurkeztu beharko da: 1.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).* |

| EGIAZTAPEN-DOKUMENTUAK (*): | | | |
|---|---|---|---|
| 1. *Memoria teknikoa* | | 3. *Segurtasun-fitxa* | |
| 2. *Fitxa teknikoa* | | 4. *Europar Batasuneko etiketa ekologikoa edo baliokidea* | |
| *(*) Horiek dira baloratuko den espezifikazio edo irizpide bakoitzaren betetzea modu argienean bermatzen duten ingurumen-ziurtagiriak eta ekoetiketak edota informazioa jaso dezakeen dokumentazioa, baina egiaztapen-dokumentazio baliokidea ere onartuko da, finkatutako irizpideak betetzen direla argiro frogatzen badute.* | | | |

**OHARRAK:**

*Dokumentu honetan garatutako irizpideez gain, makineriarekin, ibilgailuekin, olioekin eta koipeekin eta ongarrien eta bioziden ontziekin zerikusia duten baldintzak ere adieraztea interesgarria izan daiteke.*

*Informazio gehiago nahi izanez gero,* ***www.ihobe.eus*** ***webguneko Erosketa Publiko Berdearen atala*** *kontsulta dezakezu edo Ihoberekin harremanetan jar zaitezke, bide hauetatik:*

- *Tel.: 94 423 07 43*
- *Helbide elektronikoa: compra.publica@ihobe.eus*